

AITA XABIER DIHARCE “IRATZEDER“-EK EUSKALZAINDIAN SARRERAKO EGIN MINTZALDIA

Aita Beneditanoen Belloc-eko komentuan, 1963 maiatzaren 18-an, Euskaltzaindiak batzarre agiriko bat egin zuen Aita Xabier Diharce “Iratzeder”-en sarrera itzaldia ospatzeko. Pierre Lafitte jaunak egin zion erantzuna. Emen argitaratzen ditugu egun artan esandako itzak.

Jaunak eta adiskideak,

Baionarat nindoan batez, ikusi dut Zerbitzari. Eskua zabal, begiak rri ethorri zait agurka: “Zertan zira?” Eta nik: “Biziki ongi.”

Haren ezpainen zimurra eta begien ximixta: “Biziki ongi? errazu: ‘arras ongi’ edo ‘biziki untsa’.”

Nik herritz erdi-trufan: “Zer nahuzu! ‘biziki’ pollitago zait ‘arras’ baino, bai-eta ‘ongi’ arinago ‘untsa’ baino.”

Orduan, kexuaren kexuz, hasi zen: pertsulari-bestek, bai, salbatuko zutela Eskual-Herria; hoitan zela hoitan bizi eskual-jendea. Bertze eskual-lan guziek etzutela ufa balio.

“Nahuzuna! haatik bizitzea eta ibiltzea eztu aski eskual-jendeak, behar ditu, bide erakusle, zeruan izar-dirdirak.”

“Ai! zu, ai! zu...” egin zautan irri gozo batekin eta hortan bururatu zen, bortzekorik beroenean, gure kataskapartida.

Mendez-mendeko eskual-bidean, Eskual-Herriko zeruan izar-dirdira egina da orai Zerbitzari-ren orhoitzapen goxoa. Barkatuko daut beraz egun ere pertsulari, pilotari ta dantzarien eskual-bidea bertze batzueri utzirik, aipatzen badut othoizlarien eskual-bide ixila.

Hasi-aintzin, eskerrak emaiten diozkat ene aitari (Pantchoa Putchutegiri) bortxatu gaituelakotz. Donibaneko karrika nausian sorturik ere, etxeko mahainean eskuaraz mintzatzerat.

Eskerrak ene amari (Arbona-Katalieneko alabari) bigarren aldiko erakutsi dautalakotz eskuara, hamahiru urtetan, apezteko gogoia piztu zaitanean.

Eskerrak ere, ene eskual amodioa Jainkoaren amodio bakar eta osoraino abiarazi duen Uztaritzeko apezari.

Ni zuen arterat hautetsiz, jaunak, Beloke nahi izan duzue goretsi: Belokeko eskual-bideaz nitzaitzue beraz mintzatuko.

HITZ BAT AINTZINEKOEZ

Lehen hiruak

Hortarako aipatzen ahal nituzke etxe hau egin duten hiru lapurtar apezak. Ez dire gain huntan Eskuararen zaintzeko elgarretaratuak; baina hiruak Hazparneko misionest-etxetik heldu ziren, hiruak eskualdunak ziren errotik eta bereziki eskualdunentzat ari: "Iduritzen zitzaion, zion Aita Bastres Senperrak, zerbeit bazela eskas gure Eskual-Herri on eta maite hortan."

Aita predikariak

Aipatzen ahal nituzke ere, larogoi ta zortzi urthe huntan, Belokeko aitek, herriz herri predikari, bihotzetan erein dituzten eskual-hitzak. Xuberoan errepikatzen dute oraino Aita Odilon xaharraren erran hau: "Ezta herri hain aingerurik nun ezten han debrurik, ez-eta herri hain debrurik nun ezten han aingerurik."

Garaziko saltzaile zonbeitak ez dukete, agian, ahantzia gure aita Arnaud bolboraren athermaldi hau: "Gainetik kiloa, azpitik ziloa."

Anaiak edo frerak

Aita predikariez bertzalde, baliteke anaiez edo frerez zer erran. Jainkoari eskuaraz mintzo, hoitarik zenbat den ixilka saildutu eta saildutzen. Azkenik bertze munduratua: Fr. Luis Bereziartu Olaberrikoa. Berak zionaz aski kokina zen gaztean. Lan gutiegi egiten zuela aitu zitzaion Aita Gariador eta harek: "Xardina jan, xardina lan." Xahartzean zenbat aldiz ez dugu ikusi bere gelan, arrosorioekin debruari mehatxuka: "Debru mekanika, irri egin duk lehen nitaz, orai nik egiten diat hitaz."

Hiltzeko bezperan, Testamendu zaharrekoen zuhurtziarekin egin zautan: "Hau ikusi dut ene bizian: zuzen dabillana laguntzen du Jainkoak."

Jerusalemekoak

Fraidetxe berri egiterat, Beloketik urrun joan direnetan baitzen ere eskual-amodio, hetaz ere baliteke aipatzekoa.

Fr. Rafael Muscarditz aihertarraren hirurogoi eskutitz baditugu Jerusalemetik ala Frantzia barnetik ethorriak. Lur Sainduko beilarietan, dio hetarik batean, “baziren berhogoita-hamabortz escualdun garbiac eta fededun handietaric oraino, untsa plazer egin baitaukute heiekin mintzatzea eta heieri gurekilan mintzatzea, escualduna escualdunarekin gerthazten denean bezala, izana gatican ere urrun eta urrunago eta hobe” (5-6-1905.)

Aita Gariador Jerusalemeko abadeak ere “Eskualdun” astekarian ager-arazi omen zuen behin diru-galdea: “Gure Aita” eskuaraz ere ezarria izan zadin “Pater” deitu elizan.

Ameriketakoak

Hego-Ameriketarat, Belokeko Amaren Jesus-Haurra berekin eremanaz, joan direnak (Niño-Dios abadikoak) badakigu hango eskualdunen amodioz abiatu zirela.

Iphar-Ameriketakoek berritz, Monte-Bellon, Kalifornian, fraidetxe berezi bat altxatu zuten, eskual artzainak mendietarik jausten ziren tokian. Besta eta bilkura egiten hasi zen Aita Grazien Aldude-Mentakoa. Egun batez haatik, denak oro bildurik, egia erran zioten garbiki: “Eskualdunak zaizte eta giristinoak, beraz elgarren anaiak. Behar zinukete elgar lagundu; bainan, zuek Eskualdunak, axeri gorriak zaizte: zuetarik bat bertzeak baino gorago abiatu orduko, hura jorratzen duzue eta zapatzen.” Aita horren bilkurarik ez predikurik ez zuten geihago nahi izan.

Kalifornian, duela bortz urthe, azkenik hil den Belokeko semea: aita Charles Espelette Aldude-Hachketakoa, bere xaharrean pertsuz ere ari zena:

*Itsaso-mendi artean, Jaunak ezarria,
Jende lorios bezein lur choragarria:
Mabasti, albor, pentze... dena aphaindia,
Aire garbi ta sano... oi ene herria:
Eskualduna niz
Bizcaya, Gipuzcoa, Alava, Navarra,
Lapurdi, Bachenabarre, Chuberu ondarra:
Zazpiek bat egin eta... oi heien indarra,
Mundu bazterretan den, chocogno bakarra:
Eskualduna niz*

Hek guziak utzirik, izan den aitarik ixilena aipatuko dut; hartaz mintzatzeak sar-araziko baigitu naski Beloke bihotz bihotzean.

II

AITARIK IXILENAREN BIZIA

Nor zen

Aldi bakar bat agertu da eskual-liburu batean haren izena “Irakurtu dut, dio Aita Joseph bigarren abadeak, irakurtu dut eta irakur-arazi Aita Xavier Mazondori Jesusen Bihotz Sakratuaz Aita Basilio Joanategik egin duen liburua.”

Aita Xavier Mazondok utzi paper batzu baziren Belokeko erhauts-zoko batean. Egun hautan ikertu ditut, bati eta bertzeari zenbeit xehetasun galdetu eta huna zer dutan ikasi.

Itsasuarra zen Joanes Massonde eta Latsaberrian sortua. Aita Zuraidekoa zuen, ama berritz Juana Ihalur deitua.

Larresoron ari zelarik ikasten, aditu zuen Aita Bastres Belokeko lehen abadea predikatzen: “zeruan bezala bazitezkelo ifernuan ere apezak.” Ondoko urriaren hamabian, mila zortzi ehun eta larogoi ta lauan, bazoan fraidetzerat.

Aita Joanategi eta Aita Mazondo

Zortzi urthe bazuen ordukotz Belokek eta Erromarat galdegin berria zuen bere gazteen berak moldatzea. Zergatik othe? Frantzia barnerat igortzea aintz gostatzen zelakotz eta —orduko paperetan hala ezarria da— “eskual-jendeak baititu bere ohidura eta mintzaira bereziak”.

Fraidegaien lehen moldatzailea: Aita Basilio Joanategi hautatu zuten.

Hameka urtez egona zen, fraidetu-aintzin, Aita Joanategi Altzain erretor, egiazko erretor. “Denbora hartan, kondatu daut hango batek, baziren Altzain gorriak eta xuriak. Gorriak gaixtoak ziren eta xuriak onak (orai nork jakin nor den gaixto eta nor on?)

Gorriek igortzen ziozkaten gauaz harriak hegaztegirat eta athe-aintzina zikintzen zioten.

Apez saindua zen ordukotz eta bazoan elizarat argia gabe. Gorri errabiatu batek nahi izan zion joko tzar bat egin. Eliz-aintzinean den burdinezko hura kendu zion, zilorat eror zadin.

Biharamunean Jaun Erretora eliza-rat doalarik dei batzu entzuten ditu: emazte bat zilorat eroria. Emazte hura goizik abiatua zen, mez-aintzinean kofesatzeko eta hain xuxen emazte hura gorri haren ama...”

Kantaria zen Aita Joanategi. Berak kondatua du Adorazionetan zabilala eta Dartayeten Magnifikata kantatzen zuela gogotik. Gero kartetan apez lagunekin. Adorazione batetarik, ilhunpean, sartzen zen batez bere buruari erran zion: “Zer ari naiz, ezta hori nik amestu bizia, fraidetu behar dut.”

Osoki fraidetu zen eta lehen urtean hamar ta zenbeit kiloz mehatu. Bere buruarentzat garratza zen, baina bihotz zabalekoa.

Zer zioken Latsaberriko Joanesek bere moldatzaileaz ez dakigu; moldatzaileak aldiz zer zion fraide berriaz bai:

“Hemezortzi urthe ditu. Bere eskola guziak bururatuak ditu Larresoron. Bethi lehen sariak ardietsiak ditu. Halarik ere aphala da eta lañoa. Othoitzerat biziki ekharria da, ezta da eta jitez dener idekia. Atxik dezola Jesus Jaunak osagarri ona eta bilakatuko zaiku fraide on ona.”

Ixturitzen eta Itsasun bien sor-etxeen ikusten izan naiz. Aita Joanategirena, Chelaitoa, Ixturitze kasko-kaskoan da: handik zer bazter gizen alai eta zabalak, urrunean mendi urdinak, pentzen erdian eliza xuria.

Latsaberria ere gain gainean da, baina mendi-harroken artean: handik bi mendi kozkorren arteko erreka baizik ez ageri, erreka zolan ibaia trumilka joaki. Harroka zilo hortarik zeru alde baizik ezin begiak luza.

Apeztu orduko Tivoli-rat igorri zuten Aita Xavier, eskola handietan ibil zadin. Burua bortxatu zuen eta gogo Latsaberriko erreka iduri bilakatu zitzaion. Bizi guzian gaitz ezin-sendatu bat izan zuen, begiak zerurat atxikiz gainditu eta deneri gorde duena: iduritzen zitzaion bertzek bazakitela edo bazakiketela gogoan zuena, gogoan zuen guzia. Garbiaren garbiz bihotza garbi bilakarazteko grazia... izigarria.

Ixturitze-Chelaitotik zenbat pentze-lore ageri... Aita Joanategik liburu frango egin du. Latsaberriko harroketan aldiz lore guti edo batere... Barneko minak jana, ez badu Aita Mazondok libururik egin, nor harri? Alta! erreka-zolan, zer ur nasai eta garbia, haren bihotz barnean zer eskual-amodioa.

Erakusle

Lan eta lan egin behar zuela mirikuek erranik, bizi guzian ar-arazi dute erakusten eta erakusten: bai greka, bai latina, bai Morala, bai Izkirio Saindua eta bertze.

Hebreoz eta arabez ikasi zuen ber berak. Testamendu zahar grekazko bat bazaukan eta Izkirio Sainduaren erakusteko bazituen bere baitarik argi bereziak.

Mila bederatzi ehun eta hiruko Maiatzean, Beloke lege beltzek hustu zutenean gaztekin joan zen, Aita Joanategi buru, Olza Nafarroako herrixkarat. Baionatik Zuastirat ixil-ixila egin omen zuen burdin-bidez piaia, bethi othoitzean eta irakurtze sainduetan sartua.

Agorrileko azken egunetan Idiazabalerat biltzen ziren Belokekoak oro eta, hiru urtheen buruan, Lazkanorat.

Erakusten dute oraino han zoin tokitan zuen, arratsalde oroz, iragaiten esku-laneko orena. Bazoan aintzurra eskuan eta bizpahiru latinezko-liburu besapean. Apur bat aintzur, apur bat irakur eta berritz has... Beharrik baitzen bertze fraiderik komentuko lurren ibiltzeko.

III

HAREN ESKUAL-LANAK

Ea orai zer dioten Aita Xavier Mazondoren paper xaharrek

Eskualdun-bilkurak:

Eskualdun-bilkurak hasi zituen Lazkanon bertze aita gazte batzuekin. Hitzaldi hau egin zioten lehen bilkuran:

“Errana da gauza haundiec maiz hastapen ttipiatic dituztela; guk ere hasten dugu bilkhura ttipi bat: agian izanen dire hastapenac ttipi bezain, ondorioac haundi eta eder!...”

...Zuzen den bezala hasico gare hitztegitic.” (Haren itzaldia laburtzen dut.)

“Lehenic behar dire, bildotchac bildotchegira bezala hitzac hitz-regira bildu”... “Hatchemaiteac eta biltzeac lanak ditu; bainan hori ezta

oraino hastapena baizic. Hitzac dire haitzac bezala. Gizonaren ahotic hitza eta lurpetic haitza atheratzen dire: bainan ez errorik eta adarririk gabe... Haitza ezagutu nahi duenac bere izaite eta hedadura guzian, behar diozka ontsa miatu erroac eta adarrac... eta yakin ez bakharric orai den bezala, bainan noiz nola sorthua den, nola handitua eta zer gora-behera izan duen..."

Xedea hartu zuten denek, ortzegunetan, hamabortzetik biltzeko.

Paper xaharreti esker badakigu zer egiten zuten xuxen bilkura hortan.

Lehenik solas

Axularren Geroa edo bertze liburu bat besapean heldu da Aita Xavier eta aintzinetik iskribuz asmatzen du solasaldia:

—Bertzek: Zer duzu galtzar azpian liburu ñimiño hori? zertako ez duzu emaiten sakelan.

—Harek: Trufaz ari zira zu; bainan carga izana gatic, nahiago nuke balitz oraino haundiago.

Bertzek: Moltsa bezala beraz: hura ere iduritzen zauku bethi ttipiegi eta arinegi dela.

—Ahotic yuan dautazu; erraitera nindohan hemen ditugula, guk Eskualdunec, urheac eta zilarrac baino geihago balio duten ontasunac eta aberastasunac.

Hitz biltzen ari ziren, solas egin ondoan.

Lau ehun eta hemezortzi hitz badituzte hola, Axularren Gero-tik hartuak eta erdararat itzuliak.

Bertzalde hitztegietan aurkitzen etzituzten beren herriko hitzak lerro-lerro ezartzen zituzten.

Alduden: begi armautak (yeux braqués).

Itsasun: chiligarratu (griller), girgileria (vanités dans la mise).

Senperen: kalapetatzea (bâcler un travail).

Lazkanon: ihurtzi (frotter).

Zalgizen: ürrantü (achever).

Ataunen: errita eman (gronder) eta holako hitz parrasta bat.

Galde zonbeit egin zetzazken gero bakoxtak.

Eskuaraz nola erran: synonymes? Hitztegi batek dio: orabatekoa.

Ahal "nola erdarat itzul", solas huntan: *ahal* du adinik edo bizkarrik aski?

Bizkaitarrez "abe edo habe" dioten landarea zer othe da erdaraz.

Azkenean erakaspén batzu emaiten zituen Aita Mazondok ala eskual-jendeaz ala eskual-hizkuntzaz.

Egiazko jakintsua zen eta haren paperetarik ageri du erran guziak, aintzinetik zilatuak zituela. Haren ithurriak ziren: Revue internationale des Etudes basques, Vinson, Van Eys, Webster, Humboldt, Schuchart, Bonaparte, Inchauspe eta bertze frango.

Eskualzalekilako eskutitzak.

Mila bederatzi ehun eta zazpiko urtharrilean Aita Joanategi Lazkanotik joan zen Ahurtiko seroretarat (dio Aita Xavier-k) eta "aite maite" horrek Azkueren hiztegi handia hartu zuen berekin.

Daranatz jaun apez adiskideari hitz bat igortzen dio: zenbeit aitekin ari dela eskuara zilutzen eta Azkuek ahandi dituzken hitz batzuen biltzen... Hortarako Azkueren hitztegi handiaren beharra litakela. Beharba eskualzale jaun batek, lana truk, eman liezakegula zonbeit urtheentzat...

Igortzen dio Daranatzek berak Azkueren liburu bat hitz hauk dauzkana:

"Offert gracieusement par l'auteur aux Bénédictins de Lazcano. 2 février 1912."

Hamalauko Maiatzaren 31-an Daranatzek berritz Aita Xavieri: hiztegi berri baten behar handia badela Eskual-Herrian. Azkuek eskuaratik erdararat egin baitu, zuek behar zinukete erdaratik eskuararat egin. Bi urtheen lana liteke, inguruan dukezun laguntzarekin.

Argitaratzeko dirua errexki atxemanen da, eskualzaleen ganik. Azkueren bertze bi hiztegi igorriko daukitzut. Badakit lanez ithoa zarela; bainan, zu gidari, has ditela aita batzu. Othoi!

Daranatz jaun apezari ihardesten dio: harritua izanen dela haren galdeaz bainan onhartzen duela, berari gustukoa zaiolako eta eskual-bilkurentzat gai on bat izanen delako.

Hasiko gare beraz, lan-arte guziak hortan iraganen ditut... Egia erran, lan hortarako ezin hobekienean gare: eskual-herri guziatarik badi-relakotz gure artean.

Hamazazpi baziren Baxenabartarrak eta bertze hainbertze Gipuzkoarrrak; hamar Lapurtarrak, bortz Nafartarrak, bat Xuberotarra. Ezta harritzeko Mathieu jaun apezpikuak erranik, grekatarrek egin zuten "koi-ne" hura Belokekoek ari zutela egiten...

Uztailaren bortzean Azkue-ren bi hiztegi igortzearekin erraiten dio Daranatzek Abbadie jaun Superiorari Harrieten hiztegia galdetzeko. Ez dio Azkueri eman izan nahi. Bainan orai Harrieten obraren argitaratzeko mentura galdua da eta zuen lanak ez dio gisa guziz kalterik egiten ahal.

Galdea egiten dio beraz Aita Mazondok Abbadie jaunari: “gure lanak ez dio balio geihago baizik emanen Harriet-en liburuari.”

Abbadie jaunak, Uztailaren hogoi ta bederatzian: Gogotik eman dezokela, bainan, aspaldiko urthetan, Azkuek daukala. Hari eskatzeko.

Hau mixterioa! Azkuek Daranatzeri ez duela, Abbadik Mazondori harek duela...

Lan handienak

Dena den, lanari lotu zen Aita Xavier. Bere eskuz egina utzi du *hiztegi bat* mila bederatzia ehun eta berhogoi hitz dauzkana.

Hasi du ere Daranatzek galdegina zion erdaratik eskuararateko *hiztegi handia*:

“*Le 8 septembre 1920*

Je commence aujourd’hui très modestement un travail de longue haleine que d’autres pourront peut-être un jour continuer et achever après moi.”

Erraiten du gero Azkueren hiztegi osoa izan balu eskuetan, aspaldian aintzinatua izanen zuela lan hori; bainan ondikotz! laugarren zathian argitaratzetik gelditu dela bet-betan.

Nola ari gogo duen ere, erraiten du garbiki. Eztut, ondikotz! lanaren hastapena baizik atxeman paperetan.

Egin du bertzalde lan funtsezko bat *eskual berboaz*, lau zathi dauzkana:

—Gramatikaz zenbeit hitz.

—DA lapurtarra eta DA garaztarra.

—DU lapurtarra.

—DU gipuzkoarra.

Ainitz baliatu ditu naski hortarako Inchauspe et Iturri-en liburuak.

—Azken lana: “*Ebanjelio saindua*, Erospeneko berri ona, eskuaraz emana, guzia batean.”

Sci kapitulu baditu bakarrik, grekatik beretik eskuararat itzuliak.

Eginak eta ezinak

Latsaberriko erreka-bazterrean bada kurutze bat; eta ur handia badabila bethi harroka harroka.

Kurutze hori Aita Mazondo-en ilhobaren seme bakarrarena “*Mendia bezalako mutiko bat*”, daut erran hil-gaztearen ama xaharrak.

Hogoi-ta hamaseieko Martxoaren 24an hil da Aita Xavier nihungo mendia baino goragoko Jainko-bilari kartsua. Hamar urthe Lazkanotik Belokerat fraide geihenekin itzulia zela. Arrunt fin-findua eta saindutua zen: besoetarainoko mahain luxe batean ari zen xutik zirri-zirri lanean, esku batean luma eta bertzean kurutzeño bat noiz-nahi musukatzen zuena.

Iduriz, eztu gauza handirik egin, eztu hasi lanetarik deus bururatu... Othoizlarien eskual-bidean, eginek bezenbat balio badukete, goiko argian, ezinek...

Hilda fraide anaiari osoki emana. Fraiden bidean, batek ezin egina, bertzek dute, Jainkoaren orenean, eginen.

Azken hitz bat.

Errekatik airatua da orai Aita Mazondoren gogoa... Haren minen eta ezinen fruitu agertu dire urte hautan hogoi-ta hamar bat liburu edo liburuxka eta larogoi kantu berri chunka zabaldu direnak...

Amestuaren aldian gauza guti, mende berri hunen beharren aldean gutiago.

Apezak, serorak eta bertzeak, nahi-t-ez erdaldun-arazle ala eskualdun-arazle dire beren urhats eta erakaspenetan. Heien laguntzeko ordu da.

Azken OTHOIZLARI-n Garaziko eskuara du Baionako apezpikuak eta Zañadoko erretorak Donamartikoa, Tisserant kardinaleak Donibane Ziburukoa, bertze jaun haundi batzuek Baigorrikoa, Aiherrakoa, Eihalarrekoa, Aita Sainduak berritz Senperekoa.

Joanden ilabetean Afrikarat ereman duen itsas-untzian bururatua du Aita Gachitegik bere "Laborantzako liburua: Zer etchaldea!"

SALMOAK ere, dena eskual-aire eta pertsu, aspaldian ontzen ginuen liburua, Apezpikutegirat joana da.

Danga-danga errepikan ari da EZKILA eta zer dio? "ETHOR BEDI ZURE ERRESUMA, ZABAL BEDI ESKUALDUN ARIMA."

P. LAFITTE JAUN KALONJEAK EGIN IHARDESPENA

Adixkide maitea,

Atsegin eta ohore zait Eskualzaindiaren izenean ongiethorri erraitea gure lagun berriari. Orok dakitena: gure biltzar hunek ez du deus ere